

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Indarrean dagoen araudia betez, enpresaburuak langileen osasuna zaindu eta enpresako arrisku-egoerak minimizatu behar ditu. **Enpresaburuaren eginbeharren** artean daude:

- Laneko arriskuen prebentziorako plan bat egitea, arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jarduera planifikatzea eta lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak ikertzea.
- Prebentzioa antolatzea enpresan.
- Langileei informazioa, kontsulta, parte-hartzea eta prestakuntza ematea.
- Larrialdi-neurriak hartzea.
- Prebentzioaren arloan beharrezkoa den dokumentazioa prestatzea eta zaintzea.
- Langileen osasuna zaintzea.

Laneko arriskuen prebentziorako plan bat egitea, prebentzio-jarduera ebaluatzea eta laneko istripuak eta lanbide-gaixotasunak ikertzea:

- **Prebentzio-plana:**
 - Arriskuen prebentziorako plan bat egitea eta enpresaren kudeaketa-ereduan eta haren jarduera guztien garapenean txertatzea.
- **Arriskuen ebaluazioa:**
 - Arriskuen hasierako ebaluazioa, enpresaren jardueraren ezaugarri espezifikoak kontuan hartuta.
 - Ebaluazioa eguneratu egingo da lan-baldintzak aldatzen badira, eta berrikusi egingo da osasunerako kalterik gertatu bada.
- **Lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak ikertzea:**
 - Ikerketa bat abiaraztea kausak argitzeko eta beharrezko neurriak ezartzeko, eta lan-agintaritzari idatziz jakinaraztea.

Prebentzioa antolatzea enpresan:

Enpresan prebentzioa **antolatzeko**, hainbat **modalitate** **hauta** **daitezke**, baina **osasunaren zaintza kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin hitzartuko da.**

Enpresan laneko arriskuen prebentzioa antolatzeko **modalitateak** hauek dira:

- Prebentzioa enpresaburuak berak **bere gain hartzea** (gehienez 10 langilek).
- **Izendatutako langileen** bidez.
- **Kanpoko prebentzio-zerbitzuak.**

Langileei informazioa, kontsulta, parte-hartzea eta prestakuntza ematea:

- Langileek enpresari oro har eta lanpostu bakoitzari eragiten dioten arriskuei buruzko informazioa, arrisku horien aurrean aplikatu beharreko neurriak eta larrialdi-neurriak **jasotzen dituztela bermatzea.**
- Langileei galdetzea eta haien segurtasunari eta osasunari eragiten dieten gaietan **parte hartzen uztea**, eta, horrez gain, prebentzio-arloko proposamenak egiteko eskubidea izango dute.
- Kontratatzan direnean edo maila teknologikoan, ekipoetan edo funtzioetan lanpostuan aldaketak daudenean, langileek prebentzio-arloko **prestakuntza egokia jasotzen dutela bermatzea.**

Larrialdi-neurriak hartzea:

- Enpresaren tamainaren eta jardueraren arabera, eta enpresakoak ez diren pertsonak dauden ala ez kontuan hartuta, sor daitezkeen **larrialdi-egoerak aztertuko ditu** enpresaburuak.
- Gainera, lehen sorospenen, suteen aurkako borrokaren eta ebakuazioaren arloan **neurri egokiak hartzeaz** arduratuko da, eta zeregin horiek egiteko behar diren langileak izendatuko eta prestatuko ditu.

Prebentzioaren arloan beharrezkoa den dokumentazioa prestatzea eta zaintzea:

- Laneko arriskuen prebentziorako plana.
- Arriskuen ebaluazioa.
- Prebentzio-jardueraren plangintza.
- Langileen osasuna zaintzea.
- Egun bat baino gehiagoko ezintasuna duten lan-istripuen eta lanbidegaixotasunen zerrenda.

Langileen Osasuna zaintzea:

- Langileei beren **osasun-egoera aldian-aldian zaintzeko zerbitzua bermatzea**, lanaren arrisku espezifikoak kontuan hartuta.

Araudia:

[Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales](#)

[Real Decreto 39/1997, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención](#)